

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	ITELAZPI SA
2. Sektorea:	<input type="checkbox"/> Telekomunikazioetarako sozietate publikoa
3. Langile kopurua:	17
4. Webgunea:	www.itelazpi.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>ITELAZPI irrati- eta telebista-seinaleak garraiatzeko zerbitzuak eta telekomunikazio publikoen zerbitzuak emateaz arduratzen den euskal enpresa publiko bat da. Horrez gain, telekomunikazio-azpiegitura publikoak ere kudeatzen ditu. Hori guztia punta-puntako teknologiaren bidez, kalitatezko zerbitzua emanez, berdintasuna eta hizkuntzen kudeaketa sustatuz, pertsonak babestuz eta ingurumena errespetatuz egiten du.</p> <p>Broadcast operadore gisa, EiTb Taldearen bikaintasun-aitorpena jaso nahi du ITELAZPIk. Halaber, tresna publiko den aldetik, euskal administrazio publikoaren erreferentziatzko organismoa izan nahi du telekomunikazio-zerbitzuen arloan.</p> <p>Honako hauek dira gure balio nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Bezeroa eta gizartea izatea helburu.- Ingurumena babestea.- Genero eta pertsonen berdintasuna.- Hizkuntza-kudeaketa: elebitasun orekatua.- Pertsonak egotea gure jardueraren erdigunean- Punta-puntako teknologia erabiltzea gure zerbitzuetan.- Prestakuntza-maila handiko langileak izatea.- Bikaintasuna eta berrikuntza.- Gardentasuna eta eraginkortasuna.

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Amaia Bizkarguenaga Jugo
Helbide elektronikoa:	abizkarguenaga@itelazpi.eus
Telefonoa:	944032300


PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	HIZKUNTZEN BARNE ERABILERA NEURTZEN – MINTZAGRAMA eta IDATZIGRAMA
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Erakundeetan ematen den hizkuntzen ahozko eta idatzizko barne erabilera neurtzeko Mintzagrama eta Idatzigrama erabiltzen hasi ginen duela urte batzuk.</p> <p>Neurketa egiteko erabiltzen den erreminta 2 Excel dira, abat Mintzagrama ahozko erabilera neurtzeko eta bestea Idatzigrama idatzizko erabilera (barne e-mailetakoa batez ere) neurtzeko. Bertan, taula batetan, erakundeko langile bakoitzak beste lankideekin hartu-emanak (ahozkoak Mintzagraman eta idatzizkoak Idatzigraman) zein hizkuntzatan izaten dituen adierazten du. Excela hutsik bidaltzen zaio langile bakoitzari besteen erantzunak ikus ez ditzaten.</p> <p>4 aukera daude:</p> <ul style="list-style-type: none">- Dena euskaraz: 1 zenbakia (berde iluna)- Gehiena euskaraz: 2 zenbakia (berde argia)- Gehiena gaztelaniaz: 3 zenbakia (laranja)- Dena gaztelaniaz: 4 zenbakia (gorria) <p>Gelaxkan dagokion zenbakia jarri behar da eta aukeraren arabera, automatikoki gelaxkari kolore bat emango zaio, berde iluna dena euskaraz bada, berde argia gehiena euskaraz, laranja gehiena gaztelaniaz eta gorria dena gaztelaniaz bada.</p> <p>Portzentajeak ere kalkulatu dira eremu bakoitzaren ehuneko bestea emanaz.</p> <p>Taula koloreztatuak berehala jartzen du ikusgai erakundearen euskararen erabilera. Oso bisuala da.</p> <p>Gure kasuan urtean bi aldiz egiten dugu normalean ekainean lehenengoa eta abenduan bigarrena. Hain bisuala izanik, euskararen erabileraren bilakaera begiratu baten argi ikusten da.</p> <p>Erreminta hau erabiltzeak langileengan ere eragina du:</p> <ol style="list-style-type: none">1) Mintzagrama eta Idatzigrama betetzerakoan, langile bakoitzak nahi gabe ere hausnarketa txiki bat egiten du. <i>“Zein hizkuntzatan hitz egiten dut lankide honekin? Zergatik? Aldatu nezake barneratuta daukadan ohitura hori eta hemendik aurrera euskaraz saiatu pixkanaka? Biok</i>

prestakuntzara goaz..... aprobeztatuko dugu momentu hau hizkuntza ohitura aldatzeko?“. Horrelako galderak etortzen zaizkigu burura eta motibatu egiten gaitu ahal den heinean geroz eta gehiagotan euskara erabiltzeko.

- 2) Euskara jardunaldi eta bilera orokorretan Mintzagrama eta Idatzigramatik ateratako kolore taulak jartzen ditugu (izenik gabe). Begiratu baten plantilla guztiak ikusten du erakundean hizkuntzen erabilera zein den eta askotan sorpresak egoten dira, onerako batzuetan eta txarrerako besteetan. Honek ere taldean hausnartzera eta elkarrekin aurrerapausoak proposatzera eramaten gaitu.

(Irudia adibide bat da. Ez dira emaitza errealak)



Esan bezala, hizkuntzen erabilera neurtu, bilakaera modua grafiko baten ikusi eta langileen hizkuntza ohiturak aldatze aldera motibazioa lantzeko erreminta ona iruditzen zaigu.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Ondoren Excelak duen itxura azaltzen da. Eredu bat besterik ez da, ausazko balioak jarrita.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

